

## AGUSTIN ANABITARTE IRAZU

(1891-1981)

1981.eko Ekainaren 4ean hil zen Donostian Agustin Anabitarte Irazu euskal idazle jator eta Euskaltzaindiko urgazlea. Hiri berean sortua zen 1891.eko Azaroaren 20an. Aspaldi idazteari utzia zen, baina garai batean egin zituen lanak gogoangarriak dira.

*Argia*-ren sortzailekide eta aldizkari horrez gainera *Euskal-Esnalea*, *Euzkadi*, *RIEV*, *Gipuzkoarra* eta *Euskera* aldizkarietan idatzi zuen, inoiz “Anabi” izenordez. Baina, idazle bezala, liburuak izan ziren haren emaitzarik ederrena.

Erdaraz idatzi zuen liburu bakarra *Patrones y capitanes de yate* deritzana da, 1958an argitaratua eta geroztik beste zenbait argitalpen izan dituena. Beste zenbait liburutan utzi zigun ordea beraren sorketazko lana, euskara jatorrez idatzia eta kale-tar girozkoa gainera.

Lehen lehenik *Neska-mutleri dirua aurreratzen erakusteko* liburuxka bat atera zuen Aurrezki Kutxaren eskariz, 1923. urtean. Gero, *Antziñako Olinpiar Jolasak* 1925-ean, urte bete geroago Euskal Esnalea elkartearen “Itzaldiak” sailean berriz argitaratuko zena, berauen eskariz eman zuen hitzaldi bat bai zen Olinpiadak kirol bezala zer ziren agertuz idatzi zuen hura. Baina lan mamitsuagoak horien ondotik etorriko ziren.

Euskaltzaindiak “Schuchardt Saria” eratu zuen literatura bizkortzeko asmoz. Bi urtez egin ziren deiak eta bietan Agustin Anabitarte izan zen irabazle, 1929an eta 1932an: “Usauri”, eleberri eraz egindako irakurgai, 1930ean *Euskera* aldizkarian zatika argitaratua lehenik eta liburu aparteko gero; *Donostia* deritzana ordea, egileak ber-berak zioen bezala, “Usauri-ren anai laztana” da. “Usauri” itsas-giroz egina eta “Donostia” hiri barneko gora-beheraz. Bigarren hau ere *Euskera*-n agertu zen lehenik eta liburu apartean gero.

Aldizkarietan idatzi zituenetan, besteak beste, “Don Kijote”-ren atal euskaratua ere bada, 1926koa.

Gerrak, Agustin Anabitareri ere, hogetakak urtetako isilaldia ekarri zion. 1958. urtean Itxaropenako Kuliska sortan *Poli* zeritzan eleberria argitaratu zuen, umezurtz baten ibileretan oinarritua. 1961.ean argitaldari berean *Aprika-ko basamortuan* zeritzana, Afrika iparraldean oporraldietan egin zuen bidaia kontatuaz. Azken liburu honen hitzaurrean erakutsi zigun Agustin zenak bere urduritasuna edo ibitari gogoak, bere idaz-lan guzietan somatzen dena: “Nik lurralde guztietarako gogoak izan det beti, gauza berri asko ikusteko egarria. Itsastarrenganako naia ere bai. Izan ere, oriek ikusten dituzte erri ta bazterrak?”

Ikuspegi hori nabarmen agertzen da haren literaturan. Orain, azken bidaian, har dezala betiko atsedena (G. B.).

J. S. M.